

altza

Amaigabeko solasaldia

a Itzako Irrati Tailerra otsailean egingo den III Irrati Astea hasi da dagoneko prestatzen.

«Irratia amaigabeko solasaldia» izenburupean mintegi bat egingo da otsailaren 17tik 21era. Casares Kultur Etxean izango dira saioak 17.00etatik 19.00etara. Izena emateko epea urtarrilaren 7tik 13ra egongo da zabalik eta prezioa 6.000 eta 8.000 pezeta arteko izango da.

Asteari hasiera emanez, astelheanean «Irratia eta interpretazioa»ri buruz arituko da Esther Remiro RNEko kazetaria. Asteartean Joserra Garziak «Inprobisazioa irratian» landuko du. Asteazkenean Pedro Barea etorriko da Casaresera «Irratiaren hurbiltasuna» azaltzeko eta azken egunean Gotzon Toralek eta Mariano Ferrerrek «Elkarrizketarako irratia» eta «Hizketaldi erreflexiboa» izango dituzte hizketagai.

AINHOA PERMACH (TFNOA.: 289068)



«Irratia amaigabeko solasaldia» mintegian parte hartu nahi izanez gero, izena emateko epea urtarrilaren 7tik 13ra bitartean izango da zabalik.

herrera

Bolatokian Eguberri hauetarako Gazte Bolo Txapelketa antolatu da 6 eta 14 urte bitarteko haurrentzat, auzoak duen azpiegitura honen erabilera bultzatu asmoz. Euskal Giroak eta Herrera Kirol Elkarteak hartu dute parte antolakuntzan eta gazteengandik erantzun ona jaso dute. Abenduaren 27an adibidez gazte kopuru polita elkartu zen bolatokian.

Hala ere, bolatoki hau nahikoa egoera kaskarrean dago, izan ere, euria eta haizea egiten duenean, estalita ez dagoenez, ez daiteke erabili. Honen aurrean, Euskal Giroak eta Herrera Kirol Elkarteak bolatokia estaltzeko eskaera luzatu diote Kirol Udal Patronatuari.

50 urte beteko ditu aurtien Herrera Kirol Elkarteak.


Urte hauetan iraupen lasterketa, kross, maratoia, herri kirolak, futbito eta bolo taldeak osatu ditu. Auzoan kirola bultzatzen egin dituen urte hauek guztiak gogoratzeko, ekintza ugari izango dira 1997an elkartearen inguruan eta horren berri aldiro irakurri ahal izango duzue IRUTXULO. Zorionak beraz, Herrera Kirol Elkarteari hau bere urtea da eta.

**Giro
jatorra**

TXALUPA

taberna

Fermin Calbeton 3



taberna

LANBROA

konstituzio plaza

MARBELTZ

M
A
R
I

1
9

BELEA taberna



Ikatz kalea 3

URRAKI

Taberna

Ikatz kalea 12 • Parte Zaharra